


LUA

2021eko apirila • 25. zenbakia



Pauso bat etorkizunera

Legorreta 2030
plan estrategikoa landuko du
udalak udazkenean,
eta hirigintza
antolamendurako
plan orokorra abiatu.

GERATZEKO ETORRIAK

Andreea Stanila

2

COVID-19

GEHIGARRIA

7

BERDINTASUNA

Indarkeria matxista

16



Andreea Stanila (Konstantza, Errumania, 1984)

.....
Duela bederatzi urte etorri zen Stanila Legorretara, Calin Bucur senarrarekin, gurasoekin Kantabrian lau urte eta erdiz bizi ondoren. Orain, terapia bainuklimaterikoetan espezializatutako kiromasajista da Elgorriagako bainuetxean. Bi seme-alaba ditu: Ibai, 4 urtekoa, eta Amaia, 2 urtekoa.

Urte batzuk badaramatzazu Legorretan. Norekin etorri zinen?

Nire senarrarekin. Une hartan argi geneukan. Familia bat osatu nahi genuen. Ez zidan ezkontzerik ere eskatu, gauzak alderantziz egin genituen. Lehenengo elkarrekin joan ginen bizitzera, etxea erosi genuen, eta gero etorri ziren ezkontzearen kontuak, umeak izatearena, eta abar. Errumanian jende gehienak elkar ezagutzen du, ezkondu egiten da, elkarrekin bizitzera joaten dira, eta seme-alabak edukitzen dituzte. Eta gu alderantziz hasi ginen.

Zerk bultzatu zintuzten etortzera?

Lehen aldiz oportetara etorri nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan Espainiako iparraldea, Kantauri itsasoa, dena. Itsasoa

eta mendia leku bakar batean edukitzea zoragarria iruditu zitzaidan. Ez dago leku askotan. Nire herrialdean mendia 800 kilometrotara nuen. Beti falta izan dut itsasoa eta mendia leku bakar batean izatea. Orduan esan nion amari, “ama, hemen jaio behar nuen nik!”, eta amak esan zidan: “Zu erotuta zaude, itzuli unibertsitatera!”. Baina erabakia hartua nuela sumatu zuenean, beraiekin etortzera gonbidatu ninduen. Eta, horrela, dena utzi nuen, eta hutsetik hasi nintzen. Hasieran jatetxe bateko sukaldeko laguntzaile gisa hasi nintzen lanean, eta gero trebatzen joan naiz, lanez aldatzen. Senarra ezagutu nuenean, Kantabrian nuen lana utzi behar izan nuen, bere lana egonkorragoa zelako. Eta horrela izan zen.

Eta nire senarra gauza berak bultzatu zuen, bizitza berri bat hutsetik hasteak. Berak ere lan ona zuen Errumanian, Mercedesen lan egiten zuen, Sibiu hirian. Eta hemen aurkitu gara; bera mendikoa eta ni itsasokoa, eta itsasoa eta mendia elkartuta dauden lekuan aurkitu gara!

Zer aurkitu nahi zenuten hona etorri zinetenean? Eta aurkitu duzue?

Bakea bilatzen genuen, lasaitasuna, beste bizimodu bat, eta horregatik erabaki genuen herri bat. Izan ere, ni hiri handi batekoa nintzen, argiaren abiaduran mugitzen zena, eta giro hori arrotza zitzaidan. Eromena zen. Bilatzen genuena aurkitu dugula esan dezaket, bai. Bizimodu lasai hori aurkitu dut, haurrak kalean jolasean ikusten dituzuna. Uste dut hori izan zela Legorretaz maitemindu gintuen lehen gauza. Etxea ikustera etorri ginenean, haurrak kalean jolasean ikusi genituen, batzuk mantarekin eta jostailuekin. Gu txikiak ginenean bezala jolasten ziren. “Ostra, nik hau ez dut luzaroan ikusi!”, esan genuen. Guk flipatu egin genuen, eta umeak izateko leku ona zela iruditu zitzaigun.

Eta urte batzuk Legorretan igaro ondoren, gustura al zaudete?

Bai, oso gustura. Ez nuen espero. Gainera, ez nuen espero ikastola hain ona, hain ederra izatea. Haurdun nengoela haurrak Tolosara eramateko asmoa nuen. Baina ikastetxea ikustera joan ginenean, andereñoek beren lana egiteko zuten dedikazioa izugarri gustatu zitzaigun! Eta Legorretan matrikulatzea erabaki genuen. Oso gustura gaude. Errumanian txikitan ezagutu genuenaren oso desberdina da. Gure garaian komunista zen, oso kuadrikulatua. Orain, haurren erritmoa

errespetatzen da, lekua ematen zaie, beren zaletasunak bilatzen laguntzen zaie.

Zure seme-alabak hemen jaio ziren. Harrezkero, izan al zarete Errumanian?

Bai, Zumarragan jaio ziren, eta, egia esan, etxean bezala sentiarazi ninduten. Errumaniara urtero joaten gara. 2020a kenduta, noski! Urtebete baino gehiago daramate amona zein izebak ikusi gabe. Asko dakite Errumaniari buruz, etxean errumanieraz hitz egiten dugu, gaztelaniaz kalean eta euskaraz eskolan.

Zer aldatu zaizu Legorretara etorrira?

Pertsonalki, agian nintzena baino bakartiagoa bihurtu naiz. Izan ere, festan ibiltzetik edo lagunak edukitzetik, lasaiago egotera igaro naiz, lehen aipatu dugun bake hori aurkitzera. Nire lanbidea ere aldatu da. Nik lehen turismoan, ostalaritzan edo bulegoan lan egiten nuen, eta orain kiromasajean eta terapia bainuklimaterikoetan lan egiten dut. Zazpi urte daramatzat horretan, horietako sei Elgorriagan. Prestatzeko Legorretatik Bilbora joaten nintzen ikastaroa egiteko, aurrez aurreko prestakuntza nahiago izan nuelako. Gero, Zestoako bainuetxean egin nituen praktikak, eta, urtebetez autonomo izan eta, gaur egun, Elgorriagan nabil. Legorretako jendeari eskerrak eman nahi nizkioke den bezalakoa izateagatik, jende ona. Lagundu didan jende guztiari (gehienei), baita ukitu arrazista batekin tratatu nauenari ere. Denetik ikasi dut!

Euskara nola daramazu?

Hasieran oso hizkuntza arraroa iruditu zitzaidan, oso gogorra, eta gero gustatzen hasi zitzaidan, hizkuntzak asko gustatzen baitzaizkit. Nigatik baltz, hizkuntza guztiak

hitz egingo nituzke mundu guztiarekin komunikatzeko!

Gaztelaniarekin, hiru hilabetetan ikasi nuen atzerriarrentzako ikastaroan, eta azkenean aspertu egin nintzen eskolez, ikaskideak baino aurreratuago bainengoen. Euskararekin ez zait gauza bera gertatu. Askoz zailagoa da, dena alderantziz da, bua! Baina polita da, eta gustatzen zait jendeak bere hizkuntza gorde nahi izatea, defendatzea.

Nire seme-alabek euskaraz egiten dute, oso ondo! Ibaik, nire seme zaharrenak, gaztelania utzi eta etxean errumanieraz eta kalean euskaraz hitz egitea erabaki du. Baina nire alabak gaztelania bakarrik aukeratu du.

Iritsi zinetenean, odola ematera joan zineten. Balioa ematen diozue besteei laguntzeari?

Bai, odola ematea funtsezkoa izan da niretzat. Nire gurasoak bizitza osoan odola ematen ikusi ditut, eta ni 18 urte betetzeko irrikan nengoen odola eman ahal izateko. 18 urte bete eta segituan odola eman nuen. Eta gero, duela gutxi, ezin izan nuen Legorretan eman, plasma ematera animatu bainintzen. Plasma emateko hurrengo hitzordua maiatzean daukat, eta ekainean odola emango dut berriro, dena antolatuta daukat! Nire senarrak nik baino meritu handiagoa du, orratzei beldurra dielako. Eta animatu egin zen! Odola emateaz gain, boluntario lanetan ibili naiz GKE ezberdinetan. Horietako batean Itsaso Beltzeko izurde espezieak zaintzeaz arduratzen ginen, beste batean Konstantzako mapa berde bat egin genuen, eta haur ezgaituen lorpenak ezagutarazten eta umezurtzei laguntzeko lanetan ere ibili nintzen. Esperientzia horiek izugarri aberastu ninduten.



LEGORRETA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA, HERRITARREN PARTAIDETZAREKIN

Udalak plan estrategiko bat landuko du udazkenean, datoze urteetarako udal politikak eta horiek garatzeko tresnak lerratuko dituen. Proposamen hau 2020ko hasieran landu zuen udalak, eta udaberrian hastekoa zen, baina bete-betean harrapatu zuen pandemiak. Urte eta erdi geroago, uste du are eta garrantzitsuagoa dela hausnarketa egin eta herritarrek zer premia dituzten jakitea. Gogoeta honetan, udal antolamenduaren kudeaketa eta herrigintzari buruzko hausnarketa egiteaz gain, adineko pertsonen eta menpekotasuna dutenen zaintzari buruzko hausnarketa egingo du. Horretarako, zerbitzuen erabiltzaileekin eta herritarrekin oraingo ereduaren hausnarketa konpartitua egin eta etorkizuneko eredia birpentsatuko du. Beraz, hiru ardatz izango

ditu plan estrategikoak: udal antolamendua, herrigintza eta zaintza.

Eta, hori aurrera eraman ahal izateko, udalaren ustez ezinbestekoa da herritarren parte hartzea, komunitatearen beharrak eta nahiak kontuan hartzea eta politika publikoen estrategiak eta ekintzak diseinatzeko oinarriak adostea. Honako helburu hauek jarri ditu hori lortu ahal izateko:

- Legorretako gaur egungo egoeraren azterketa partekatua egitea eta etorkizun hurbileko erronkak identifikatzea.
- Gaur egungo egoeraren inguruko azterketan oinarrituta eta erronka nagusiak kontuan hartuta, Legorretako plan estrategikoa diseinatzea, etorkizunera begira desio dugun eszenatokia irudi-

kutzen duena, norabide horretan eman beharreko lehenengo urratsak zehaztearekin batera.

- Udalerriko agente, eragile eta herritarrek inplikatu, harremanetan jarri eta herri eraikuntzan elkarlanean jarduteko dinamika bat sortzea (udala, eragileak/elkarteak, enpresak, jarduera eremu ezberdinetan diharduten herritarrek -antolatuak nahiz antolatu gabeak-, hezkuntza eragileak...).
- Egoeraren inguruko gogoeta partekatua egitea eta etorkizuneko erronkak elkarrekin identifikatzea, horiei aurre egiteko moduak elkarrekin pentsatzen eta lantzen hasteko.
- Plan estrategikoa modu kolektiboan eta adostuan egitea.

Prozesuak honako fase hauek izango ditu:

- 1_ Abiatzea:** lehenik, prozesua prestatzeko 'etxeko lanak' uztailan egingo ditu udalak: lanerako egiturak eta kronograma adostu, komunikazio plana diseinatu, eragileen mapa landu...
- 2_ Diagnostiko kualitatiboa eta erronkak landu:** irail-urrian, aurrez eginak dauden diagnostikoetatik abiatuta, herritarrekin egoeraren inguruko gogoeta partekatua egingo da, eta etorkizuneko erronka nagusiak identifikatu.
- 3_ Norabidea marraztu eta lehen urratsak irudikatu:** azaroan, identifikatutako erronkei dagokienez, zein eszenatokitarantz joan nahi den zehaztu, eta lehen urratsak irudikatzen hasi.

- 4_ Emaita sozializatu eta baloratu:** bukatzeko, abenduan, prozesua eta emaitza baloratuko dira, eta plana garatzeko lehen pausoak zehaztu. Horrez gain, planaren lan ildo nagusiak herritarrei aurkeztuko zaizkie.

Irailean ikusiko dugu zein egoeratan gauden eta parte-hartze saioak nola egin daitezkeen. Espero da txertaketak aurrera segitzea eta udazkenerako oro har egoera hobea izatea. Dena dela, unean-unean hartu beharreko neurri guztiak hartuko dira.

Prozesu hau Elhuyar taldeak gidatuko du. 25.000 euroko kostua izango du, eta, finantzaketa horretan laguntzeko, foru aldundiaren dirulaguntza lortu du udalak, 8.000 eurokoa.

Plan estratégico Legorreta 2030, con participación ciudadana

El ayuntamiento elaborará en otoño un plan estratégico que marcará las políticas municipales para los próximos años, y los instrumentos para su desarrollo. Se trata de una propuesta que el ayuntamiento elaboró a principios de 2020, y que iba a iniciarse en primavera, pero justo en esos momentos llegó la pandemia. Año y medio después, el ayuntamiento cree que es más importante que nunca reflexionar y conocer las necesidades de la ciudadanía. En este proceso, además de reflexionar sobre la gestión de la organización municipal y la construcción de comunidad, reflexionará sobre el cuidado de las personas mayores y dependientes. Para ello, reflexionará de forma compartida con las personas usuarias de los servicios y la ciudadanía sobre el modelo actual, y replanteará el modelo de futuro. Por tanto, el plan estratégico se centrará en tres ejes: la ordenación municipal, la construcción de comunidad y el cuidado.

Y para poder llevarlo a cabo, el ayuntamiento considera imprescindible la participación ciudadana, tener en cuenta las necesidades y aspiraciones de la comunidad y acordar las bases para el diseño de estrategias y acciones de políticas públicas.

En septiembre veremos en qué situación estamos y cómo se pueden realizar las sesiones de participación. Se espera que la vacunación siga adelante y que la situación para el otoño en general sea mejor. En todo caso, se adoptarán todas las medidas necesarias en cada momento.

Este proceso será liderado por el grupo Elhuyar. Con un coste de 25.000 euros, el ayuntamiento ha recibido una subvención de la Diputación Foral de 8.000 euros.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egingo du udalak, arau subsidiarioak berritu eta legera egokitzeko

Legorretako udal arauak, 2011. urtean onar-tutakoak eta egun indarrean daudenak, arau subsidiario edo ordezkoko arauak dira. 2/2006 Euskadiko Hirigintza eta Lurzoru Legea inda-rrean sartu ondoren onartu baziren ere, ez dau-de lege horretara egokituak. Lege horrek zioen zortzi urteko epean egokitu beharko zirela udal arauak lege horretara bertara. 2014an, data hori iritsi zenerako, lurraldeko udalerrri gutxiak egokitu zituzten arauak, eta beste epe bat eman zuten: 2021a.

Epea gainean da, beraz, eta beharrezko jotzen da Legorretako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrari berriaren idazketarekin hastea. Gai-nera, 2011tik hona hirigintza planifikazioari era-giten dioten hainbat lege eta arau berri onartu

dira (genero ikuspuntuaren legea, ingurumen lege berria, euskararen eraginaren azterketa, energiaren legea...), eta lurralde arloko hainbat arautegi berri sartu dira indarrean (lurralde plan sektorialak, lurralde antolamenduaren gidale-rrio berriak, ibai eta erreken arautegi berria...).

Plan orokorra egiteko talde zabal bat kon-tratatuko da udaberrian, deialdi bidez, eta lau urteko epean gauzatu beharko da. Guztira, 211.750 euroko kostua izango du, eta lau zatitan ordainduko da. Kopuru esanguratsua da Legorreta bezalako herri batentzat, baina kostu osoaren %50 foru aldundiak lagunduko du. Dokumentu garrantzitsua izango da, hiri-gintzaren ikuspegitik herri eredua zehaztuko duena.

FASEAK			
1. fasea	Herritarren parte hartze programa	hilabete 1	%5
2.fasea	Hirigintzako diagnostikoa	6 hilabete	%10
3.fasea	Planaren aurrerapena eta ingurumen dokumentu estrategikoa	6 hilabete	%10
Jendaurrean jartzea (2 hilabete)			
4.fasea	Aurrerapena jendaurrean jartzearen ondoriozko txostena	2 hilabete	%5
5.fasea	Plana idaztea eta ingurumen azterketa estrategikoa	8 hilabete	%20
Plana jendaurrean jartzea (2 hilabete)			
6.fasea	Plana jendaurrean jartzearen ondoriozko txostena	2 hilabete	%5
7.fasea	Plana idaztea, behin-behinean onartzeko	2 hilabete	%20
Plana jendaurrean jartzea (2 hilabete)			
8.fasea	Plana behin betiko onartzeko idaztea	hilabete 1	%10
	Txostena idaztea (3 hilabete)		
9.fasea	Planaren testuategina idaztea, argitara onartzeko	2 hilabete	%15
GUZTIRA		40 hilabete	%100

El Ayuntamiento elaborará un Plan General de Ordenación Urbana para la reforma y adecuación legal de las normas subsidiarias

Las normas municipales de Legorreta, aprobadas en el año 2011, son unas normas subsidiarias. Si bien se aprobaron con posterioridad a la entrada en vigor de la Ley 2/2006 de construcción de comunidad y Suelo del País Vasco, no están adaptados a la misma. Esta ley señalaba que en el plazo de ocho años se deberían adaptar las normas municipales a la misma. En 2014, a la llegada de esta fecha, pocos municipios del territorio adaptaron sus normas y dieron un nuevo plazo, el 2021.

Por tanto, se considera necesario comenzar con la redacción del nuevo Plan General de Ordenación Urbana de Legorreta. Además, desde 2011 se han aprobado nuevas leyes y normas que afectan a la planificación urbanística (ley de perspectiva de género, nueva ley ambiental, estudio de impacto ambiental del euskera, ley de energía, etc.), y se han introducido nuevas normativas de carácter territorial (planes territoriales sectoriales, nuevas directrices de ordenación del territorio, nueva normativa de ríos y arroyos...).

Para la elaboración del plan general, se contratará un grupo amplio, que deberá ejecutar el plan en el plazo de cuatro años. El coste total será de 211.750 euros y se abonará en cuatro pagos. Es una cifra significativa para un pueblo como Legorreta, pero el 50% del coste total será subvencionado por la diputación. Será un documento importante que definirá el modelo urbano desde el punto de vista urbanístico.

COVID-19:
Bizitza aldatu
digun pandemia



Herritar boluntarioek jositako maskarak.

2020ko martxo erdialde hartan, herritarrek etxean sartzea ekarri zuen COVID-19aren pandemiak, eta, konfinamendu betean, legorretarren ongizatean laguntzea izan zen udalaren eginkizun eta buruhauste nagusia; izan ere, COVID-19aren krisiak sekulako ondorioak ekarri ditu, eta lehendik ere zaugarrien ziren herritarrei kalte egin die bereziki; alarma egoera dekretatu zenetik, udal honek berebiziko ahalegina egin du kolektibo ahulenei laguntzeko. Hasiera hartan, egunez egun irizpide berriak zetozen, eta egunez egun hartu behar ziren erabakiak, erabaki sendoak. Udal honek horrexerri eman zion lehentasuna, erabakiak hartu eta gure herritarrei laguntzeari. Zeregin horretan, goraipatzekoa da gizarte zerbitzuek egin duten lana, bai eta herritarrek elkarren artean laguntzeko sortutako sareak ere.

► **Boluntario sarea:** denera, 37 herritarrek eman zuten izena boluntario gisa aritzeko, eta honako zerbitzu hauek eskaini zituzten:

- **Erosketak:** adineko herritar batzuei erosketak egiten zizkieten, eta etxeraino eramane.
- **Elikagai banaketa:** gizarte zerbitzuek bidalitako hamar familiarentzat erosketak egin, elikagaiak sailkatu eta etxeetara banatu.
- **Telefono deiak:** lehen hiru egunetan, gizarte zerbitzuetatik deitu zieten ezagutzen zituzten eta behar bereziko egoeran egon zitezkeen herritarrei. Ondoren, boluntario sareko herritarrek deitu zieten 80 urtetik gorako herritar guztiei, zer moduz zeuden galdetu eta laguntza eskaintzeko.
- **Maskara berrerabilgarriak:** herriko jostun boluntarioek maskara berrerabilgarriak egin zituzten, herritarren artean banatzeko, eta boluntario sareko kideek hartu zuten horiek banatzeko ardura.
- Boluntario sare honetan gazte asko ibili ziren adinekoei laguntzen, eta aberatsa izan da bi aldeentzat, bai laguntza jaso duenarentzat, bai eman duenarentzat ere, belaunaldien arteko harremana sortu baita, eta elkar ezagutzea ekarri du horrek.

► **Baliabide komunitarioak:**


- **Aholkularitza psikologikoa gurasoentzat:** Harremanak elkartearen bidez, martxan jarri zen egoera horretan gurasoei erremintak eskaintzeko aholkularitza zerbitzua. Olatz Berastegi psikologoak eman zuen zerbitzua, telefonoz.
- **Mendekotasunaren prebentziorako eta memoria lantzeko tailerra:** pandemia piztu aurretik, zortzi emakumek parte hartzen zuten tailer honetan. Guztiei galdetu zitzaion ea jaso nahi zuten arreta telefonoz, eta baiezkota erantzun zuten. Hala, tailer honetako dinamizatzaileak telefonoz deitzen ziren erabiltzaileei, eta ariketak proposatu.
- **Zainduz Zaindu, zaintzaileen laguntza taldea:** Nerea Redondoadituak bideratzen du zaintzaileen laguntza taldea, eta pandemia piztu ondoren online egiten jarraitu zuten. Gogorra izan zen, baina oso positiboa.
- **Guraso eskola:** hilean behin elkartzen da taldea, eta apirilean eta maiatzean telematikoki elkartu ziren; guraso guztiek eskertu zuten topaketa aurrera eramane izana.
- **Jatorri ezberdineko emakumeen elkargunea:** Txelo Berra dinamizatzailea jarri zen harremanetan taldeko emakumeekin, nola zeuden galdetu eta udalak martxan jarri zituen baliabideen berri emateko.
- **Laguntza etxeko langileei:** gizarte zerbitzuetatik deitu zieten etxeko langileei, koordinazioan aritu eta laguntza eskaintzeko: maskarak, aholkularitza eta beste.
- **Etkez etxeko laguntza:** zerbitzu horretan laguntza berriak bideratu zituen udalak. Egunez zentroa itxi eta zaintzarako baliabide gabe geratu ziren herritarrentzat, adibidez, edo larrialdi egoera zela-eta zerbitzuan ordu gehiago eskaintzea.
- **Arrakala digitala:** Ugara herri eskolarekin eta Oianguren institutuarekin harremanetan jarri zen udala, jakiteko ea herriko ikasleren batek bazuen arazorik eskolak jasotzeko. Hala, Oianguren institutuko ikasle bati Internetarako konexioa bermatu zitzaion, Izarkom kooperatibarekin lankidetzan.
- **Mediku etxea:** herriko erizain eta medikuarekin koordinazio estua mantendu da urte honetan, herritarren beharrei erantzun ahal izateko.
- **Tabernak:** konfinamendu ondorengo faseetan, elkarlanean aritu ziren tabernariak eta udala, zetozen neurriari erantzun bat eman ahal izateko.
- **Dirulaguntzak:**
 - **12 urtetik beherako umeen eta mendekoen zaintza:** bi eskari egon ziren, mendeko senideak zaintzeko biak.



- **Eskola jangelan beka jasotzen duten familiak:** gizarte zerbitzuek eta eskolako zuzendaritzak elkarlanean bideratu zuten laguntza hau, eta hiru familiari eman zitzaion.
- **Gizarte Larrialdi Laguntzak:** Eusko Jaurlaritzak urte hasieran hitzartutako kopurua igo zuen, eta diru gehiago esleitu zion Legorretako Udalari. Urte amaierarako esleituriko diru kopuru osoa gastatu zen.
- Tabernari, merkatari eta autonomo txikiak:

- **Tasa eta zergak:** tabernari, merkatari eta autonomo txikiei %50eko laguntza eman zaie 2020ko zaborraren tasa eta ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko.
- **Materiala erosteko:** 200 euroko laguntza eman zaie tabernari, merkatari eta autonomo txikiei, EPI norbera babesteko ekipamenduak erosteko.

Nola gogoratzen dituzu pandemiaren lehen egun eta asteak?



ALAZNE BEREZIARTUA

Donostia Ospitaleko Pediatria Larrialdietan lan egiten dut erizain bezala. Lehenengo egun haietaz gehien gogoratzen dudana zegoen kaosa da. Pandemiaren hasierak estres handia eta segurtasunik eza eragin zigun profesional guztiei, oso datu gutxi genituelako pandemiari buruz. Baliabideak ere eskasak ziren, eta protokoloen etengabeko aldaketak oso zaila egiten zigun eguneroko lana. Hasieran, Txinan egon zen pertsonaren batekin harremanik izan ote zuten galdetzen genien etortzen ziren familiei, baina, pandemiaren bilakaera azkarraren ondorioz, etengabe aldatu behar izaten genituen galderak. Horrek guztiak tentsio handia eragiten zigun. Ez genekien nola eragingo zion birus honek adin pediatrikoari, larritasunaren eta kopuruaren aldetik.

Bestalde, geure burua babesteko jantzi beharra geneukan EPlak esfortzu handia suposatzen zigun, bai jantzeko eta bai kentzeko orduan. Jantzitakoan bero handia ematen zigun, deserosoa zen, betaurrekoak lurrundu egiten zitzaizkigun, pantailak buruko mina jartzen zigun...

Gaur egun ere berdin jarraitzen dugu. Arreta handia jarri arren, profesionalen arteko kutsadurak saihetsezinak izan ziren. Kezkatuak geunden gure inguruko inor kutsatu nahi ez genuelako. Orain, urtebete igaro ondoren, hobeto dakigu nola eta zeri egin behar diogun aurre, baina igarotako denbora horren nekea nabaritzen ari gara.



LUKAS ARANDIA

Gutziz jokoz kanpo utzi ninduen; erakunde ofizialetatik izugarritzko informazio falta genuen, eta, askotan, prentsan esandakoaren berri bakarrik izaten genuen, iturriak fidagarriak ziren ala ez jakin gabe. Hasieran inpotentzia sentitzen nuen, hemengo osasun langileok herria informatzeko dugun erantzukizunaz jabetuta.



NAGORE SANCHEZ

Pandemiako lehen egunak indartsu hasi nituen arren, oso gogorra izan zen niretzat. Bi asteko alaba, 3 urteko semea eta guztia kudeatzeko ni bakarrik.

Eguna eramangarria izateko goizetik egun osoko ekintzak zehazten nituen semearekin, errutina bat eman nahian, baina txikiak agintzen zuen, eta bere nahiak ere asetu egin behar.

Familiakoek eta ingurukoek txikia nola hazten zen ezin disfrutatzeak ere tristura handia ematen zidan.

Etxean pasa genituen egun guztiek, ordea, zerbait ona ekarri zuten, anai-arreba artean konplizitate berezia sortu izana. Hirurok elkar ezagutzeko denbora eman zigun.



M^a ANGELES ARANBURU

Niretzat, pandemia hasierako okerre gure amarekiko harremana aldatzea izan zen: egunero berarekin egotetik, ez ikustera pasa ginen. Nahiz telefonoz eta bideo deiaz hitz egiten saiatu, oso gutxi ikusi eta entzuten duenez, ez zen posible izan komunikazio egoki bat edukitzea berarekin. Geroxeago, urrutira ikusteko aukera eman ziguten, baina horrek ere ez zuen arazoa konpondu.

Arazo horiek guztiak tristura handiarekin bizi izan nituen, batik bat, ama nola sentitzen ote zen pentsatuaz.



MARISOL GARMENDIA eta VITORINO SANTOS

Pasa den urteko martxoan, tarteka egiten dugun astebeteko oporraldia egitera joan ginen. Itzulera 15ean bagenuen ere, koronabirusari buruz entzuten ari ginen guztia kontuan izanik, badaezpada 13an bueltatzea erabaki genuen. Eta eskerrak: iritsi bezain pronto, lehenengo sintomak agertu ziren, nekea, sukarra eta buruko mina. Egundak etxean igaro ondoren, PCR proba egin eta biok positibo eman genuen. Senarrari pneumonia ere ikusi ziotenez, Tolosako ospitalean ingresatzea erabaki zuten. Pelikula bat bizitzen ari ginela zirudien. Ez dugu berehala ahaztuko. Dena den, gorai patzekoa da mediku, erizain eta osasun saileko langile guztiengandik jasotako tratua; une oro oso babesturik sentitu ginen.



ARANTXA LASA

Hasieran, inpotentzia handia sentitu nuen. Etxetik etxera jende ezberdinarekin egonez eta bakoitzarekin era ezberdinean jokatzuz, pertsona bakoitza mundu bat baita. Egunero irribarre batekin joaten nintzen lanera, bakoitzari ahal nion maitasun gehiena emanetz, egunak errazago pasa genitzan, bai nik eta bai beraiek. Galdera asko egiten genizkion geure buruari, ezjakintasun handia baitzegoen, baina hasieratik jabetu nintzen ahalik eta positiboan pasa beharrean geundela egun eta aste haiek, eguneroko bizitza errazagoa egiteko. Alde horretatik oso gustura eta pozik nago egin dudana lanagatik!



JOSE LUIS ARNEDO

Izurriteko lehen egunak gurekin ez zihoan zerbait gertatzen ariko balitz bezala bizitu nituen. Koronabirusa txinatarrei gerta zekien zerbait balitz bezala. Txinatarrei bai, baina guri ez. Diagnostika egiteko garaian akatsen bat izango zela pentsatu nuen. Ziur nengoen guri ez zigula eragingo; izan ere, ordura arte immuneak ginela uste izan genuen. Lehen bi asteak igaro ondoren, ordea, oinak lurrean jartzea bezala izan zen. Orduan ireki nituen begiak, eta orduan ikusi nuen zein zen zegoen errealtate gordina. Lurreko errege-erreginak ginela uste izatetik, naturak astindutako txotxongilo izatera pasatzea bezala izan zen. Bene-benetako amesgaiztoa!



ANDER AGIRRE

Lehen egunak luzeak izan ziren oso; herria beteta ikustetik ia hutsik ikustera igaro ginen egun batetik bestera, nork esan behar zigun hori 2020. urtea hasi genuenean... Arrisku taldean dagoen bizilagun batek esan zidan ea errekaduak egingo nizkion; horrela, kalean edo portalean kutsatzea saihestu zezakeen, eta baiezkoa eman nion. Ondoren, alkateari esan nion pertsona honi nik lagunduko niola, eta orduan izan nuen boluntario taldearen berri. Itxialdia amaitu arte, behar zituen errekaduak, hala nola erosketak egin eta zaborrak bota nizkion. Beldur pixka bat izan nuen, kutsatzeko arriskua egon zitekeelako. Zorionez ez zen horrelakorik pasa. Ordutik aurrera, berak dioen bezala, ni bere aingeru guardakoa naiz. Gutxierekin zenbat egin daitekeen! Bestalde, herritik zehar musukoak banatzen ere ibili ginen herriko zaintzaile eta arrisku taldeko pertsonen. Udalak emandako laguntza eskertzekoa izan zen. Hasierako momentu haietatik asko ikasi dugula uste dut, nahiz eta momentu hauetan erlaxatzen ari ez ote garen iruditu.



PATXI GOYA

2020ko martxoan, COVID pandemia hasi zenean, kezka asko eduki nuen jasotzen ari ginen informazioagatik eta daukagun lanagatik (kontaktu zuzen asko). Moldatu beharra geneukan, eta beharrezko neurri guztiak hartu genituen gure lana egiten jarraitzeko (garbitasun handia, desinfekzioak, eskularruak, maskarilla... eta salmenta produktuen eskaera handiagoa). Behin neurri guztiak hartu eta gero, ondo eraman dugu pandemia, eta orain arte problemarik gabe aritu gara.



PAKI HERRERA

Pandemia hasieran, egia esan, ez nuen aspertzeko denborarik eduki; lanean aritu nintzen egun horietan, kaleak desinfektatzen, balkoietako ekintzetan parte hartuz, musika jarritz... Hori bai, egun tristeak ere eduki nituen, adibidez, nire bilobaren urteak izan ziren egunean, ezin izan bainuen berarekin egon. Egunerokotasunean ahalik eta jende gehienari laguntzen saiatu nintzen, erosketak beraien etxetara eramanez. Beste bat, playback bat ere egin nuen, eta irabazi ere bai!, globoak puztu, nire musika jarri, kartelak marraztu... Gehien gustatzen zitzaidana jendearen eta familiakoen urteetan beraiek zoriontzia zen. Azkenik, egia esateko, oso harro nago egindako lanaz eta legorretar askori eman dieran laguntzagatik.



AMAIA ETXEBERRIA

Garai zail eta ezegonkor batean bageunden ere, agerian geratu zen legorretarrok elkar zaintzeko prest gaudela. Hainbat emakumek izugarritzko elkartasuna izan zuten musukoa erabiltzen hasi beharko genuela adierazi zigutenean. Eskainitako laguntza eta inplikazio handiari esker, denbora oso laburrean musuko pila bat egin genituen, eta, ondoren, behar gehien izan zezaketen herritarren artean banatu ziren.

Oraindik ere, osasun larrialdiaren ondorioak pairatzen ari da gizartea. 2020ko martxoan ez bezala, kalera irten daiteke, lanera joan ere bai, baina etxeetan zaintza lanak egiteko egoera saihetsezinak sortzen dira askotan: haurren konfinamenduak, pertsona helduen eta menpekoen konfinamenduak; zerbitzuen eteteak (eguneko zentroak, adibidez); etxera bisitan edo zaintza lanetara joaten diren familiarako kopuruaren murrizteak... Egunerokoan erabiltzen ziren zaintza informaleko sareak ahuldu dira, eta zaintza formala edo instituzionala ez da maila berean indartu. Hori horrela, Legorretako Udalak, Gizarte Zerbitzuen sailetik, zaintza hau indartzeko ahaleginetan jarraitzen du: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua indartzeko prest dago, eta, zailtasun guztien gainetik, baliabide komunitarioak martxan ditu: gimnasia saioak, memoria tailerra, guraso eskola eta beste.

Kulturan ere, nabarmena izan da pandemiaren eragina. 2020ko jaiei keinu egin eta gero, uztaila iritsi zen Kultur sailak lehenengo ekitaldiak biltzea lortu zuenerako. Ordurako, bestelako lanak egin zituen: udal eraikinetako aforoak zehaztu, udalekuen inguruan protokoloak ezagutu eta antolatzeak aukera eragileekin landu... Horretaz gain, liburutegia liburu berriez hornitu zuen, eta zineman pelikulak emateko lizentzia eskuratzeko izapideekin jarraitu.

Hortik aurrera, udalaren apustua, eta betiere momentuko egoerara egokituta, kultur Hortik aurrera, udalaren apustua, eta betiere momentuko egoerara egokituta, kultur ekintzak antolatzearen aldekoa izan da. Oraingoan, ekitaldiak antzokira mugatu dira, egungo egoeran espazio irekietako antolakuntzak zailtasun handiak dituelako. Hala ere, aurrera begira, aukera hori lantzen eta aztertzen ere ari da Kultur saila. Gauzak aldatu dira, baina kultura ezinbestekoa da. Horregatik, behar diren neurri guztiak hartuta, modu seguruan, kultura kontsumitzeko aukera eskaintzeko lanean jarraituko du udalak.

#KulturaSeguruaDa



Indarkeria matxistaren inguruko gogoeta, erasoen aurka herri gisa erantzuteko

Abenduan hasita, martxan da indarkeria matxistaren inguruan gogoeta egiteko parte-hartze prozesua, Arremanitz kooperatibak gidatuta. Udalaren berdintasun planean jasoa dago hezkidetzako lantzeko ildo bat; orain arte, eskolan lan egin da arlo horretan: irakasle eta gurasoentzako hezkidetzako saioak, patioa eraldatzeko prozesua, tratatu onen saioak lehen hezkuntzako umeekin... eskolatik harago, herri mailan ere beharra sumatu zen; Arremanitzeko kideak prozesua nola bideratu pentsatzen ari zirela, herrian eraso bat izan zen, tratatu txar fisiko batzuk gertatu ziren, eta herriak erreakzionatu egin zuen.

Gertakari horretatik abiatuta diseinatu zuten prozesua. Axier Baglietto, Arremanitzeko kidea: «Abiapuntua da, herrian horrelako kasu gehiago egonez gero, nola kudeatu ikastea, modu osasuntsu batean eman dadin erantzun bat, baita komunitatea zaintzea ere, ez gaudelako horrelako gertaera baten aurrean jokatzeko entrenatuta, normalean hartzen delako modu oso punitibista batean...». Arremanitz taldeko kidea da Maialen Gartzia ere, eta, haren ustez, halako egoeretan, aurrez gogoetarik egin ez bada, oso zaila da kudeatzea: «Tentsio handiko momentuak dira. Betiko roletan sartzen gara; gizonak salbatzaile rola hartzen dute, eta emakumeek akonpainamendu funtzioa egiten dute...».

Hala, hausnarketarako espazio bat eskaini zuen udalak, herriko talde feministako kideekin batera. Abenduan hasi zen prozesua, eta hogeitabat herritar ari dira parte hartzen. Oso aberatsa ari da izaten. Belaunaldi ezberdineko herritarrak ari dira parte hartzen, eta interesgarria da hori. Bai eta gizonak parte hartzea ere. Eta, saioetan, bereziki zaindu da errespetua, begirunea. Bakoitza bere bidetik abiatu bada ere, hala azaldu du asmoa Gartzia: «Elkarri begira jarri eta emakumeek ikustea non dauden gizonak, eta gizonak ikustea non dauden emakumeak, eta, hortik, batera eraikitzen hastea». Abiapuntuak hain desberdinak dira, asko-asko zaindu nahi izan dute bakoitzaren espektatibak zeintzuk diren: «Zer eskatzen diogun besteari, balioa eman nahi diogulako baita ere borondate horri, gai honi arreta jartzeko».

Maiatzean amaituko da prozesua, eta, ondorioak atera ondoren, aztertu beharko da egindakoa herrira nola gerturatu, inork nahi ez duen bezalako egoeraren bat berririo gertatzen bada, legorretarrak ahal den prestatuen egoteko eta ardurak argi edukitzeko.



Reflexión sobre la violencia machista

Desde diciembre, está en marcha un proceso participativo para reflexionar sobre la violencia machista, liderado por la cooperativa Arremanitz. En el plan de igualdad del ayuntamiento está recogida una línea de trabajo coeducativo; en este ámbito, hasta ahora se ha trabajado en la escuela: sesiones de coeducación para profesores y padres y madres, proceso de transformación del patio, sesiones de buenos tratos con niños y niñas de educación primaria... también se notó la necesidad de tratar este ámbito a nivel local, y, cuando los miembros de Arremanitz estaban pensando en cómo encauzar el proceso, hubo una agresión en el pueblo, se produjeron unos malos tratos físicos, y el pueblo reaccionó.

El proceso fue diseñado a partir de este hecho, y, desde diciembre, están participando una veintena de legorretarras; son personas de diferentes generaciones, lo cual es muy interesante. Así como la participación de los hombres.

El proceso finalizará en mayo, y, tras sacar conclusiones, habrá que analizar cómo acercar esas conclusiones al pueblo, para que los y las legorretarras estén lo más preparadas posible y tengan claras las responsabilidades.



Bizikleta parkea Legorretan


Bizikletentzako zirkuitua egingo den eremua.

Herri baratzeen ondoan, 2.000 m2 inguruko lursail bat dago, eta bertan egingo du udalak bizikleta parkea, ziklo-kros edo antzeko jarduerak egiteko. Aire zabaleko aisialdia eta kirola sustatzea da parke honen helburua. Izan ere, azken hilabeteetan, pandemiaren eraginez, handitu egin da halako ekintzetarako joera, eta udalak uste du sustatu egin behar direla halako jarduera osasuntsuak. Horrez gain, gero eta herritar gehiago ibiltzen dira bizikletan, eta eskari horretatik abiatuta sortu da proiektua.

Egun eremuak duen orografia ez da eraldatuko. Eremuak berak dituen desnibel eta maldak aprobetxatuko dira, bertatik bizikleten bideak egokitzeko. Era berean, elementu hauek sortuko dira bertan:

- **Salto irteerak:** 2,5 metroko altuera izango duten bi mendi tontor lau dira. Bata handiagoa, eta bestea txikiagoa.
- **Peralteak:** 0,7 metro altuko betelana.
- **Mailak:** egurrezko oztopoak lurrian jarriak, erditik edo gainetik pasatzeko.

- **Saltoak:** 0,7 metro garai eta 2,5 x 3,5 metroko lurrezko tontortxoak, gainetik pasatzeko.
- **Salto txikiak:** saltoen berdinak baina 2 x 2,5 metroko zabalerakoak.
- **Duby:** egungo desnibela erabiliko da terrenoan gora eta behera joateko. Ez da betelanik egingo eremu horretan.
- **Slalom:** bi edo hiru peralte txiki egingo dira, bizikletarekin saihesteko.
- **Rock garden:** lurrian tamaina txikiko harriak jarriko dira gainetik pasatzeko.



Beheko irudian:
Eremu osoaren planoak.
Eskuineko irudian:
bizikleta parkearen planoak.

- **Piramidea:** metro bateko altuerako mendixka sortzen da, eta, igoeran eta jaitsieran, tamaina txikiko harriak jartzen dira.
- **Eskailera:** piramidea bezalakoa, baina harriak jarri orde, egurrezko eskailerak sortzen dira maldan.
- **Publikoa:** publikoa egoteko eremuak dira.
- **Jaitsiera eta igoerak:** eremuak berak Oria ibaiaren inguruan sortzen duen desnibela aprobetxatzeko, azpiko kotara sarbideak sortuko dira. Egungo maldan lur mugimendu txiki bat egingo da, lurra kenduz, betelanik gabe.

- **Pistak:** bizikletek joan-etorriak egiteko pistak dira. Ez da terrenoa moldatuko, ezta betelanik egingo ere.
- **Zirkuito irteerak:** lasterketa bat dagoenean, edo entrenamenduetan, parte-hartzaileen irteerak egiteko lekua.
- **Zirkuito laua:** lasterketak egiteko zirkuitoak, inolako oztopo edo elementurik gabekoak.

Espero da udaran prest egotea parkea, herritarren gozagarri.

Parque de bicicletas junto a las huertas

Junto a las huertas municipales, hay una parcela de unos 2.000 m2, en la que el ayuntamiento realizará un parque de bicicletas para actividades como ciclo-kros. El objetivo de este parque es fomentar el ocio y el deporte al aire libre. En los últimos meses, debido a la pandemia, se ha incrementado la tendencia a este tipo de actividades, y el ayuntamiento considera que hay que fomentar este tipo de prácticas saludables. Además, cada vez más legorretarras andan en bicicleta, y el proyecto ha surgido a partir de esta demanda. Se espera que este verano el parque esté listo para el disfrute de los y las legorretarras.

UDALEKUAK ANTOLATZEN

Kultur saila hasia da udalekuak antolatzen: begiraleen deialdia egin du, eta aurrerago egingo du umeei begirako deialdia. COVID-19aren bilakaera kontuan hartuta eta foru aldundiaren protokoloari jarraituz, ekainean hartu beharko da behin betiko erabakia, eta, martxan jartzeko aukera suertatzen bada, egoeraren araberrako neurriak hartuko dira. Iaz, gogorra izan zen udalekuak ez egiteko erabakia hartu behar izatea; aurtengo egoera ere ez da samurra, baina udalaren nahia da zerbitzua eskaintzea, neurri guztiak zorrotz betez. Ea, ba, posible den.

ORGANIZANDO LAS COLONIAS

El departamento de cultura ya ha comenzado a organizar las colonias: ha hecho una convocatoria de monitores y más adelante hará otra convocatoria de cara a los niños y a las niñas. Teniendo en cuenta la evolución del COVID-19 y siguiendo el protocolo de la Diputación Foral, la decisión definitiva deberá tomarse en junio.

JATORRI EZBERDINEKO EMAKUMEENTZAKO JOSKINTZA TAILERRA

Berdintasun sailak eta Gizarte Zerbitzuek elkarlanean, joskintza tailerra antolatu dute herriko jatorri ezberdineko emakumeentzat. Jabetze eskolaren barneko ekintza bat da, emakume hauen elkargune bat sortzeko asmoz abiatua. Ana Rosa Agirrek ematen ditu joskintza saio hauek. Hasi berria da tailerra, talde mugatu batekin, baina, eskari handiagoa egon denez, udalak aztertuko du aurrera begira deialdi irekia egiteko aukera.

MAIATZEKO EGITARAUA, ERAGILEEKIN

Azken hilabeteetan, kultur ekitaldiak antolatzen ari da Kultur saila, eta zertxobait bereziagoa izango da maiatzeko egitaraua. Tamalez, aurten ere ez da izango azintzio jairik, baina, kultur ekitaldiak antolatzeko eginahalean, bi bilera egin ditu Kultur sailak herritarrekin, maiatzeko egitaraua ahalik eta zabalena eta herritarren gustukoa izan dadin. Aldizkari honen azken orrian duzue informazio guztia. Horrez gain, datozen hilabeteetarako proposamenik egin nahi izanez gero, idatzi lasai kultura@legorreta.eus helbide elektronikora.

PROGRAMACIÓN CULTURAL DE MAYO

En los últimos meses, el departamento de Cultura ha organizado actos culturales, y la programación de mayo será algo más especial. Lamentablemente, este año tampoco habrá fiestas, pero el departamento de Cultura ha mantenido dos reuniones con los y las legorretarras para que el programa de mayo sea lo más amplio posible. Toda la información está disponible en la última página de esta revista.

TALLER DE COSTURA PARA MUJERES DE DIFERENTES ORÍGENES

El departamento de Igualdad y los Servicios Sociales han organizado un taller de costura para mujeres de diferentes orígenes. Se trata de una actividad de la escuela de empoderamiento, y Ana Rosa Agirre imparte estas sesiones de costura. El taller acaba de comenzar, con un grupo limitado, pero, dado que ha habido más demanda, el ayuntamiento estudiará la posibilidad de ampliar el curso.



BIZITZA BERRI BATERAKO TAPOTIAK

Alegiako 5 urteko haur batek buruko paralisia du, eta errehabilitazioa egin beharra dauka bere bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako, exoeskeleto bat behar du, eta hura erosteko kanpaina bat jarri du martxan haren familiak: tapoi bilketa. Udalak bat egin du egitasmo horrekin, eta udaletxe azpian jarriko da herritarrek tapoiak botatzeko kutxa bat, legorretarrok ere gailu hori erosten laguntzeko aukera izan dezagun.

TAPONES PARA UNA NUEVA VIDA

Una niña de 5 años de Alegia sufre parálisis mental, y necesita realizar rehabilitación para mejorar su calidad de vida. Para ello, necesita un exoesqueleto, y su familia ha puesto en marcha una campaña para comprarlo: una recogida de tapones. El ayuntamiento se ha sumado a este proyecto, y colocará una caja para que los y las legorretarras echen tapones y puedan colaborar en la compra de este dispositivo.

GURASOENTZAKO HITZALDI SORTA

Pandemia honek erronka handia jarri die gurasoei ere, seme-alabak hezteko garaian. Bide horretan laguntzeko asmoz, udaleko Gizarte Zerbitzuek zenbait hitzaldi antolatu dituzte haienentzat. Harremanak elkarteko psikologo Olatz Berastegi ari da ematen hitzaldiok, eta beste bi izango dira maiatzean, ikasturteko azkenak: maiatzaren 19an eta 27an, hain justu. *Berdinen arteko gatazkak* landuko dituzte hurrengo saioan.

CHARLAS PARA PADRES Y MADRES

Esta pandemia ha puesto también un gran reto a los padres y a las madres a la hora de educar a sus hijos e hijas. Con el fin de colaborar en este camino, los Servicios Sociales municipales han organizado una serie de charlas. La próxima charla será el 19 de mayo, y tratará los conflictos entre iguales.

IDAZKARI BERRIA UDALAN

Martxoaz geroztik, Isabel Fuertes Matxin da Legorretako Udaleko idazkaria. Aurrekoak, Iñaki Elizegik, erretiroa hartu zuen, eta IVAPEko idazkarien poltsan eskaria eginda etorri da Fuertes Legorretara. Harekin egon nahi duzuen herritarrok bulego ordutegian izango duzue horretarako aukera. Horrez gain, haxe da haren helbide elektronikoa: idazkaria@legorreta.eus

NUEVA SECRETARIA EN EL AYUNTAMIENTO

Desde marzo, Isabel Fuertes Matxin es la nueva secretaria del ayuntamiento. Los y las legorretarras que queráis estar con ella podréis hacerlo en horario de oficina. Además, su dirección de correo electrónico es idazkaria@legorreta.eus

ESKULTURA, PATXI EZKIAGARI ESKAINIA

2018ko ekainaren 28an hil zen Patxi Ezkiaga idazle eta herriko seme kutuna, baina haren oroimenak bizirik segitzen du. Oraingoan, Nazario Maiz eskulturagile ikaztegiatarak hari eskainitako eskultura bat oparitu dio herriari, honako hitz hauek jasotzen dituen: *Bere baitan nauka. Segi, Patxi, hitz galduen otoitzetik ozen, utopiaren ahoan lehertzeratozen trenbide ondoko masustei harmonika jotzen. Patxi Ezkiaga herriko seme kutunari*. Parke ondoan jarri du udalak eskultura, haren izena duen kultur etxetik gertu. Egoerak hala baldintzatuta, ezin izan da ekitaldirik egin, baina espero da aurrerago ekitaldi xume bat egin ahal izatea, Ezkiagari gustatzen zitzaion gisan.

ESKULTURA DEDICADA A PATXI EZKIAGA

El 28 de junio de 2018 falleció el escritor e hijo predilecto del pueblo Patxi Ezkiaga, pero su memoria sigue viva. En esta ocasión, el escultor de Ikaztegieta Nazario Maiz ha regalado al pueblo una escultura dedicada a él. El ayuntamiento ha colocado la escultura junto al parque, cerca de la casa de cultura. Debido a las circunstancias, no se ha podido celebrar ningún acto, pero se espera que más adelante se pueda celebrar un sencillo acto.



agenda

MAIATZA

- 2** Irrien Lagunen 'Tiritatxo, egin irri!' emanaldia.
18:00etan.
- 6** Iker Karreraren 'Cabeza de carrera' liburuaren aurkezpena eta hizketaldia egilearekin.
18:30etan. • Pikuk kirol taldeak antolatuta.
- 9** - Intxurrera mendi buelta.
09:00etan. • Pikuk kirol taldeak antolatuta.
- Mendiaren inguruko dokumentala.
18:00etan. • Pikuk kirol taldeak antolatuta.

- 16** Korrontzi taldearen musika emanaldia.
18:00etan.
- 23** 'Dardara' dokumentala.
18:00etan.
- 29** Asier Kidam magoaren ikuskizuna.
12:00etan.
- 30** Alazne Etxeberriaren 'Bikote bila zenbat komeri' bakarriketa.
18:00etan.

Ekitaldi guztiak Herri Antzokian. Izena emateko:

Telefonoz (943-08 50 50), posta elektronikoz (kultura@legorreta.eus) edo Whatsappez (747428260).



@LegorretaUdala



Legorretako Udala



943 08 40 00



legorretAPP

www.legorreta.eus